

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa aurrera ateratzeko ezinbestekoak dira bezeroak. Atal honetan, gure bezero potentziala zein den eta beraien ezaugarriak aipatuko ditugu, hau da, gure jomuga izango diren bezeroen definizioa emango dugu. ZuBabestuz-en bezero nagusiak gazteak dira, bereziki 12 eta 20 urte bitarteko pertsonak, ongizate emozionala hobetzeko laguntza behar dutenak. Ikasle hauek askotan antsietatea, estresa edo autoestima arazoak dituzte, eta askok psikologora joatearen prezioa edo estigmatizazioa aitzakiatzat hartzen dute. Helburu nagusia gazteei doakoa eta segurua den zerbitzu bat eskaintzea da, beren arazoak modu irekian partekatu eta laguntza jasotzeko aukera izan dezaten.

Bezeroen segmentua talde desberdinetan banatu daiteke:

1. Arazo emozionalak dituzten ikasleak: beraien ongizate mentala zaindu nahi duten nerabeak dira, baina ez dute baliabide ekonomiko nahikorik psikologora joateko. ZuBabestuz-ek haien beharrak asetzeko aukera eskaintzen die, arreta profesionala eskainiz eta laguntza pertsonalizatua eginez.
2. Bakarrik sentitzen diren gazteak: nerabe askok ingurune sozial segurua behar dute, beraien esperientziak partekatzeko eta lagun berriak egiteko. Taldeko saioak eta tailerrak aukera bikaina dira harreman sozialak indartzeko eta gazteen artean babesa sustatzeko.
3. Familia eta ikastetxeak: ZuBabestuz-ek gazteen inguruko eragileei (gurasoak, tutoreak, ikastetxeko arduradunak) laguntza eskaintzen die. Informazioa eta tailerrak eskaintzea lagungarria da, nerabeen ongizatea hobetzeko estrategia integral bat sortzeko.